

Angel Rocha (Kalitatea Fundazioa)

## **Koordinatzaileei elkarrizketa:**

### **1. Datu orokor batzuk: enpresa zein den, noiztik dago martxan Euskara Plana, noiztik zara koordinatzaile, ...**

Angel Rocha Azpitarte

Kalitatea Fundazioko Euskara koordinatzailea

Kalitatea Fundazioan 2007. urtean jarri genduen abian Euskara plana, eta ordundik nago Euskara Koordinatzaile bezala. Zeregin horretan aritzeaz gain duela 4 urtetik Kalitatea Fundazioaren Komunikazio Arduraduna naiz.

Kalitatea Fundazioa baina ezagunagoa Eusko Label izango da ziurrenik irakurlearentzat. Kalitatea Fundazioak kudeatzen duen marka nagusia Eusko Label bada ere, entitateak beste hainbat zeregin ere egiten ditu.

### **2. Euskararen nolako erabilera irudikatzen duzu zure lantegian 10 urte barru?**

10 urte barru euskara planean jasotako helburuak beteta egotea gustatuko litzaidake. Helburu nagusia hauxe litzateke: enpresaren jarduna bi eletara egiteko inongo zailtasunik ez izatea. Sortzen diren dokumento guztiak (bai kanpora begirakoak eta baita barrura begirakoak ere) euskaraz ere egotea gustatuko litzaidake. Bestalde, enpresa barruan euskara lanerako tresna bezala erabiltzea nahi duenak erreparorik gabe erabil dezan nahiko nuke. Errespetuan oinarritutako prozesua behar du izan honek. Batzuk euskaraz ez dutenez ulertzen, errespetuz jokatu behar da beraiekin; eta beste batzuk, euskaraz hobeto moldatzen direnez edo besterik gabe euskaraz komunikatu nahi dutenez, horiei ere errespetu osoa zor zaie beraien hizkuntzan jardun ahal izateko.

### **3. Planak dituen kanpo babesak (dirulaguntzak, agiriak...) nahikoak iruditzen al zaizkizu? Zer behar da?**

Dirulaguntzak eta jasotako agiriekin lagundu egiten dute euskara planak aurrera eramaten. Baina horiek alferrik dira enpresaren zuzendaritzaren partetik borondaterik ez badago aurrera egiteko. Guk Eusko Jaurlaritzako Lan Hitzeko dirulaguntzak ditugu momentuz eta agiriei dagokienez Bai Euskara Ziurtagiria.

### **4. Eta barruko babesak? Zer falta da?**

Enpresa barruko babesa erabatekoa da, eta horrek asko laguntzen du. Bai zuzendaritzaren partetik eta baita langileen partetik ere oso jarrera positiboa dago. Orain arte Euskara Batzordetik proposatu diren ekimen guztiak aurrera eramateko

Zuzendaritzak ez du inongo oztoporik ipini eta langileek antolatuko ekintza guztietan parte hartzen ari dira (ikastaroak, lehiaketak, bilerak...). Agian, nire iritziz aurrera begira, denok denbora gehiago eskaini beharko genioke gai honi baina daukagun lan karga ikusita zaila egiten da.

### **5. Zergatik koordinatzaile? Zerk bultzatu zintuen Euskara Planeko lanetan konprometitzera?**

Zuzendaritzak Komunikazio kontuak emateaz gain Euskara koordinatzaile izatea eskatu zidanean ez nuen inongo arazorik izan baietz erantzuteko. Beti gustatu izan zaidan gai bat izan da. Nik ikasketa guztiak euskaraz egin ditut eta lan munduan sartu nintzenean errealitate gordinarekin egin nuen topo. Enpresatan asko egin den arren, oraindik jardun ia guztia gazteleraz egiten da eta hori aldatzeko bidean konpromiso bat hartzea bezala izan da erabakia. Gustatuko litzaidake epe ertainean gure enpresan bi hizkuntzak parean egotea, eta zergaitik ez, euskara lan tresna nagusia izatea. Eta egia esan Kalitatean hori lortu litekeela uste dut urte batzuren buruan

### **6. Zer nolako profila izan beharko luke koordinatzaileak bere lana egoki betetzeko? Profila esaten dugunean, formazioaz ari gara, pertsonaren dohainez ari gara, trebetasunez eta gaitasunez ari gara.**

Nire ustez koordinatzaile lana egiteko orduan ikasketek lagundu dezakete baina benetan garrantzitsua dena jarrera da. Hizkuntzaren normalizazioaren inguruan jarrera positiboa eduki behar da, gai horren inguruan gertatzen ari denaz informatuta egon eta benetan sinestuta eduki behar du Euskara planeko paperean idazten dugun hori bete dezakegula.

### **7. Zer eman dizu koordinatzaile izateak? Zer ekarpen egin dizu postuak? Eta zerbait kendu al dizu?**

Eman gauza asko eman dizkit. Batez ere lankideek eman didaten laguntza eta kolaborazioa azpimarratuko nituzke. Espero nuen denak interes positibo hori izatea eta buru-belarri sartzea plana gauzatzen baina hainbesterako izango zenik ez nuen espero.

### **8. Zer zailtasun dituzu zure koordinatzaile lana aurrera eramateko? Zer falta zaizu?**

Egia esan oztopo nagusia denbora da. Gainerakoan ez dut zailtasunik aurkitu. Askotan gauza gehiago edo hobeto egiteko modua ikusten duzu baina ez daukazu denborarik.

### **9. Koordinatzaile kargua hartu zenuenean, espero al zenuen egin beharreko lana horrela izango zela? Zerk harritu zaitu gehien?**

Espero nuen modukoa ari da izaten lana. Gehien harritu nauena zera izan da: egiten dizkidaten kontsulta piloa euskararen erabileraren beraren inguruan. Ia egunero izaten ditut lankideen haibat galdera: eta nola idazten da hori, eta hori horrela jartzen badut, eta nola esango zenuke beste hori....

## **10. Beste zer bait esan nahiko bazenu:**

Besterik gabe enpresa guztiak animatuko nituzke Euskara plan bat martxan jartzera. Bi arrazoi ikusten ditut horretarako. Batetik, gure hizkuntzari, euskarari zor diogun errespetua; eta bestetik, aurrera begira zer bait izan nahi badugu euskaraz ere eman behar da zerbitzua. Nire ustez, hurrengo urteetan euskaraz zerbitzua eskaintzen ez duen enpresa batek nabarmen galduko du bere lehiakortasuna. Zergatik? Gizarteak gero eta barneratuago daukan gai bat delako eta generazio berriek horrela exigituko dutelako.